

LANBIDE PROGRAMACIÓN  
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS  
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL



INSTALAZIOAK ETA  
MANTENTZEA

**INSTALAZIO TERMIKOAK  
ETA FLUIDODUNAK MANTENTZEA  
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA**

4. modulua: Instalazioen Irudikapen Grafikoa

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANBIDE  
HEZIKETAKO ZIKLOEN  
PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN  
DE LOS CICLOS FORMATIVOS  
DE FORMACIÓN PROFESIONAL



INSTALAZIOAK ETA  
MANTENTZEA

## INSTALAZIO TERMIKOAK ETA FLUIDODUNAK MANTENTZEA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

### 4.modulua: : Instalazioen Irudikapen Grafikoa

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

Lanbide Heziketako eta Etengabeko  
Ikaskuntzako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Viceconsejería de Formación Profesional  
y Aprendizaje Permanente

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Argitaraldia: 1.a, 2009ko urria

Egilea: Jon Garaikoetxea Jauregi

Argitaraldia eta koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán  
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL  
[www.kei-ivac.com](http://www.kei-ivac.com)



Diseinua eta diagramazioa: TRESEDETRES

L.G.: BI-1759-09

Iraupena: 132 ordu  
UDen kopurua: 12

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzera eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzera gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek

## AURKIBIDEA

UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	Or. 03
0. unitate didaktikoa: <b>Moduluaren aurkezpena</b>	Or. 05
1. unitate didaktikoa: <b>Irudikapen grafikoaren oinarriak.</b>	Or. 08
2. unitate didaktikoa: <b>Krokisak eta bistak interpretatzea eta egitea</b>	Or. 11
3. unitate didaktikoa: <b>Akotazioa.</b>	Or. 14
4. unitate didaktikoa: <b>Ebakidurak eta sekzioak interpretatzea eta egitea</b>	Or. 17
5. unitate didaktikoa: <b>Perspektibak interpretatzea eta egitea.</b>	Or. 20
6. unitate didaktikoa: <b>Obra zibileko planoen analisisa.</b>	Or. 23
7. unitate didaktikoa: <b>Instalazio termikoen araudiaren analisisa.</b>	Or. 25
8. unitate didaktikoa: <b>Instalazioen planoak interpretatzea.</b>	Or. 27
9. unitate didaktikoa: <b>Ordenagailuz lagundutako marrazketa-programak.</b>	Or. 29
10. unitate didaktikoa: <b>Instalazioetako plano orokorrak eta xehetasunekoak egitea.</b>	Or. 33
11. unitate didaktikoa: <b>Instalazio termikoen eskemak egitea.</b>	Or. 35
12. unitate didaktikoa: <b>Instalazio termikoetako sareen isometriak.</b>	Or. 37



## Unitate didaktikoen sekuentziak eta denboralizazioa

BLOQUES DE CONTENIDOS				UNIDADES DIDÁCTICAS SECUENCIADAS	DURACIÓN
M 1	M 2	M 3	M 4		
				UD0: Moduluaren aurkezpena	1
		X		UD1: Irudikapen grafikoaren oinarriak	5
X		X		UD2: Krokisak eta bistak interpretatzea eta egitea	15
X		X		UD3: Akotazioa	8
X		X		UD4: Ebakidurak eta sekzioak interpretatzea eta egitea	8
X		X		UD5: Perspektibak interpretatzea eta egitea	10
X		X		UD6: Obra zibileko planoen analisia	5
X		X		UD7: Instalazio termikoen araudiaren analisia	5
X				UD8: Instalazioen planoak interpretatzea	10
	X	X	X	UD9: Ordenagailuz lagundutako marrazketa-programak	20
		X	X	UD10: Instalazioetako plano orokorrak eta xehetasunekoak egitea	15
	X			UD11: Instalazio termikoen eskemak egitea	15
			X	UD12: Instalazio termikoetako sareen isometriak	15
<b>TOTAL</b>					<b>132 h.</b>

1. multzoa: Instalazio termikoetako eta fluidodunetako elementuak eta ekipamenduak irudikatzea.
2. multzoa: Instalazio termikoen eta fluidodunen eskemak lantzea.
3. multzoa: Instalazio termikoen eta fluidodunen plano orokorrak lantzea.
4. multzoa: Instalazio termikoen eta fluidodunen xehetasun-planoak eta plano isometrikoak lantzea.



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA						Iraupena: 1 ordu								
<p><b>Ikaskuntzaren helburuak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Moduluen garapeneren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere.</li> <li>2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea.</li> <li>3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.</li> <li>4. Moduluen unitate didaktikoen arteko eta moduluen eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea.</li> <li>5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez.</li> </ol>														
EDUKIAK						Multzok								
						1	2	3	4	5	6	7	8	9
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea.</li> <li>• Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea.</li> </ul>													
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura.</li> <li>• Moduluen ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian.</li> <li>• Moduluen helburuak.</li> <li>• Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak.</li> </ul>													
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea.</li> <li>• Moduluen garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak.</li> </ul>													
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK						
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplik. D.	NORK		NOLA egingo den		ZERTARAKO egingo den		ZEREKIN egingo den						
		Ir.	Ik.											
<b>J1 Ikasleak eta irakaslearen aurkezpena.</b>	1	10 min.	X	X	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenaren interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearen. Aurreko ikasturtetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.							



<b>J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.</b>	2-4	10 min.	X		Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluen gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	Arbela. Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa. Kronogramak. Informazioa duten fotokopiak.
<b>J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.</b>	2-3	10 min.	X	X	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, bame-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
<b>J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa.</b>	5	30 min.	X	X	Jarduera hori elkarriketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeak aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.

#### OHARRAK

- Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa bamean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.



1. unitate didaktikoa: IRUDIKAPEN GRAFIKOAREN OINARRIAK Iraupena: 5 ordu

**IE3: Instalazio termikoen eta fluidodunen planoak marrazten ditu, irudikatzeko konbentzionalismoak eta diseinu-programak aplikatuz.**

**Ikaskuntzaren helburuak:**

1. Marrazketa-tresnak zuzen erabiltzea.
2. Eskala eta formatu normalizatuak erabiltzea.

EDUKIAK					Multzok			
					1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	• Irudikapen grafikoko arauak aplikatzea formatuetan, eskaletan, lerro motetan eta errotulazioan.						X	
KONTZEPTUZKOAK	• Dokumentazio grafikoa. Irudikapenari buruzko arau orokorrak.						X	
JARRERAZKOAK	• Zorroztasunez jardutea, arauen arabera eta txukuntasun eta garbitasun egokiarekin egindako lanak aurkeztean.						X	
JARDUERA			METODOLOGIA				BALIABIDEAK	
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
<b>J1 Unitate didaktikoaren aurkezpena.</b>		0,25 h	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du, eta gainerako unitateekin lotuko du.	Unitate didaktikoa gainerako unitateekin lotzeko, marrazketa teknikorako sarrera gisa.	OCDA eta proiektore bidezko aurkezpena.	
<b>J2 Marrazketa teknikoaren erabiltzen duten arloei buruzko azalpena.</b>	1,2	0,25 h	X	X	Marrazketa artistikoaren eta teknikoaren ezaugarriak eta bi marrazketa horien arteko desberdintasunak adieraztea eskatuko die irakasleak ikasleei. Ondoren, irakasleak hainbat motatako marrazketa teknikoaren adibideak erakutsiko dizkie: errepideen planoak, elementu mekanikoen bistak, plano arkitektonikoak, eskema elektrikoak, tutuerien isometrikoak, eskema hidraulikoak, eta abar. Zer	Ikasleak gaiari sartzeko eta horien aurretiazko jakintzearen erlazioa ezartzeko.	Proiektorea eta irudikapen informatikoak. Paperean marraztutako planoak eta ordenagailu bidezkoak.	





					espezialitaterako erabil daitezkeen interpreta dezaten eskatuko die ikasleei.		
<b>J3.1 Marrazketa-tresnei buruzko azalpena eta erakustaldia.</b>	1	1 h	X		Irakasleak eskuzko marrazketan erabili ohi diren tresnak azalduko ditu, eta horien erabilera zuzena argituko du.	Marrazketako ohiko elementuak eta horien erabilera zuzena ezagutzeko.	Marrazketa-orriak, marrazketa-tresnak.
<b>J3.2 Marrazketa-tresnak erabiltzeko praktika autonomoa.</b>				X	Ikasleek orri batean lerroak trazatzen hasiko dira, eta, horrela, erregela, eskuaira, kartaboia, konpasa, hainbat lodierako eta gogortasuneko minak, eta abar erabiltzen ohituko dira.		
<b>J4 Normalizazioari buruzko azalpena.</b>	2	0,5 h	X		Irakasleak marrazketa teknikoko normalizaziorako sarrera egingo du. Marrazketako arau orokorrak eta normalizazio-agentziak (DIN, UNE, ISO, EN) daudela azalduko du.	Marrazketa teknikoaren erregulazioaren arauak ezagutzeko.	Marrazketa-orriak, marrazketa-tresnak.
<b>J5.1 Paper normalizatuko formatuei buruzko azalpena.</b>	1,2	0,5 h	X		Irakasleak marrazketako ohiko formatuak eta horien arteko erlazioak azalduko ditu.	Paper normalizatuarekin lan egiten ohitzeko.	Marrazketa-orriak, marrazketa-tresnak.
<b>J5.2 Paper-eskalei buruzko ariketak egitea.</b>				X	Ikasleek taula bat egingo dute. A0 formatutik abiatuko dira, eta, azalduko arauak aplikatuz, taulak formatu txikien dimentsioak edukiko ditu.		
<b>J5.3 Papera tolesteari buruzko erakustaldia eta praktika autonomoa.</b>				X	Irakasleak hainbat motatako formatuen tolesteko prozesua argituko du. Ikasleek A3 orri bat tolesteko lanak egingo dituzte.		
<b>J6.1 Eskala normalizatuari buruzko azalpena.</b>	1,2	1 h	X		Irakasleak eskalaren kontzeptua eta eskalen balio normalizatuak azalduko ditu.	Eskalekin lan egiten ohitzeko. Marrazkiak egitea eta orriak tolestea ebaluatuko da.	Marrazketa-orriak, marrazketa-tresnak.
<b>J6.2-E1 Eskalei buruzko praktika autonomoa</b>				X	Irakasleak 1:1 eskalako marrazketa-elementu txiki bat emango die ikasleei. Ikasleek handiagotze-eskala batean eta txikiagotze-eskala batean		



					erreproduzitu beharko dute marrazki hori. Marrazkia tolestuta entregatuko den A3 orri batean egingo da, ikasitako arauen arabera.		
<b>J7.1 Lerro normalizatuei buruzko azalpena.</b>	1,2	0,5 h	X		Irakasleak lerro normalizatu motak azalduko ditu.	Lerroekin eta lodierekin lan egiten ohitzeko.	Marrazketa-orriak, marrazketa-tresnak.
<b>J7.2-E2 Lerro normalizatuei buruzko praktika.</b>				X	Ikasleek lerro motak praktikatzuz egingo dute lamina.		
<b>J8.1 Errotulazio normalizatuen motei buruzko azalpena.</b>	1,2	1 h	X		Irakasleak errotulazio normalizatuko motak azalduko ditu.	Errotulazio-lanekin eta gaur egun dauden errotulazio motekin ohitzeko.	Marrazketa-orriak, marrazketa-tresnak.
<b>J8.2-E3 Errotulazioari buruzko praktikak.</b>				X	Ikasleek errotulazio motak, lerroen arteko proportzioak, altuerak eta abar praktikatzuz egingo dute lamina bat.		
<b>OHARRAK</b>							
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleen jatorrizko maila kontuan izanik, unitate didaktiko honetan erritmo handia eramatea komeni da.</li> <li>• Komeni da ikasgelan hainbat tamainatako (A1, A2, A3) industria-plano amaituen laginak edukitzea erreferentzia gisa.</li> </ul>							



2. unitate didaktikoa: KROKISAK ETA BISTAK INTERPRETATZEA ETA EGITEA Iraupena: 15 ordu

**IE1 :** Instalazio termikoetako eta fluidodunetako elementuak eta ekipamenduak irudikatzen ditu, eta planoetan eta eskemetan aplikatzekoa den sinbologia normalizatuarekin lotzen ditu.  
**IE3:** Instalazio termikoen eta fluidodunen planoak marrazten ditu, irudikatzeko konbentzionalismoak eta diseinu-programak aplikatuz.

**Ikaskuntzaren helburuak:**

1. Krokisen eta bisten interpretazioari eta antolamenduari buruzko araudia ezagutzea.
2. Lortutako bistak piezen neurriekin lotzea.
3. Krokisak egiteko eta bistak aztertzeko lanetan trebatzea.
4. Bistak lortzeko, piezaren bista nagusia hautatzea.
5. Piezak interpretatzeko proiektzioak bistaratzea.

EDUKIAK					Multzoak			
					1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bistak zuzen ezartzea.</li> <li>• Krokisak eta bistak irudikatzeko arauak aplikatzea.</li> <li>• Krokisak piezaren bistarekin lotzea.</li> </ul>				X		X	
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irudikapenari buruzko araudi orokorra.</li> <li>• Perspektiba motak.</li> <li>• Bistak hautatzeko irizpidea.</li> <li>• Proiektzio-planoak.</li> <li>• Proiektzio motak eta bistak lortzea.</li> </ul>				X		X	
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zorroztasunez jardutea, arauen arabera eta txukuntasun eta garbitasun egokiarekin egindako lanak aurkeztean.</li> <li>• Lanak egiteko prestasuna izatea.</li> </ul>				X		X	
JARDUERA			METODOLOGIA			BALIABIDEAK		
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
<b>J1 Unitate didaktikoaren aurkezpena.</b>		0,25 h	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du,	Unitate didaktikoa nabarmentzeko, oinarrizkoa baita elementuak eta eskemak ondoren	OCDa eta proiektore bidezko aurkezpena.	



					eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.	bistaratzeko.	
<b>J2 Krokisa trazatzeko prozesua zehazten duten araei eta orientabideei buruzko azalpena.</b>	1,3	1 h	X		Irakasleak krokisa egiteko jarraitu beharreko prozesua azalduko du kasu praktiko baten laguntzarekin. Horretarako, bidezko arauak errespetatuko ditu.	Krokisak egitearen oinarriak, irudikapenerako dituen alde onak eta araudia ezagutzeko.	Arbela, proiektorea eta pieza fisiko baten irudikapena.
<b>J2.1 Krokisak egiteari buruzko praktika gidatua.</b>	1	3 h	X	X	Mekanismo txiki baten laguntzarekin, ikasleek piezen krokis sinplea egingo dute azaldutako ordenari eta urratsei jarraituz: materiala prestatzea, bistak eta krokisak hautatzea, antolamendua, bisten proportzionalitatea eta kokalekua, ohar txikiak eta neurriak.	Ikasleek krokisak egiteko eta interpretatzeko maila jakin bat lortzeko.	Arbela, tresneria sinplea, marrazketa-orriak, marrazketa-tresnak.
<b>J3-E1 Krokisa lortzeko eta ikaskuntza indibidualaren jarraipena eta kontrola egiteko praktika autonomoa.</b>	1,3	3 h	X	X	Ikasleek hainbat industria-piezaren krokisak egingo dituzte paper egokian eta tresneria zuzenarekin. Ikaskuntzaren jarraipena egingo da, egindako lanen zuzenketa indibidualizatuaren bitartez.	Ikasleak neurketen proportzionaltasunean trebatzeko eta piezen behaketarekin ohitzeko.	Industria-pieza fisiko sinpleak, irudien plano prestatuak. Marrazketa-orriak, marrazketa-tresnak.
<b>J4 Proiekzioei, bistei eta irudikapen-sistemei buruzko azalpena.</b>	2,3,4,5	1,5 h	X		Irakasleak puntu baten, lerro baten, planoen edo bolumen-gorputzen proiekzioaren kontzeptua azalduko du. Adibide praktiko bat abiapuntu izanik, bistak lortzeko teknika, eta ondorengo kokalekua, azalduko du.	Proiekzioetan eta bistak lortzean erabilitako metodologia eta prozesua ulertarazteko.	Gardenkien proiektorea. Proiekzio-kuboa. Hainbat ezaugarri eta profiletako pieza fisikoak.
<b>J4.1 Piezen bistak lortzeko praktika gidatua.</b>	2,3,4	2 h	X	X	Bista nagusia abiapuntu izanik, ikasleek piezen bistak irudikatuko dituzte, betiere piezen antolamendua eta alde bakoitzaren xehetasunak errespetatuz.		Hainbat profiletako industria-piezak. Perspektiben irudiak dituzten laminak. Piezen bisten seriea, hutsune txikiak osatzeko.



<b>J4.2 Alde inklinatuei buruzko azalpena.</b>	3	0,5 h	X	Irakasleak plano inklinatuen bistak lortzeko modua azalduko du esku gainean izango duen piezaren bisualizazioarekin.	Piezetan ager daitezkeen aldeen aldaerak ezagutarazteko.	Orri laukidunak. Eskuaireta eta kartaboia.
<b>J4.3-E2 Bistak lortzeko eta ikaskuntzako prozesuaren jarraipena egiteko praktika autonomoa.</b>	2,3,4,5	3,75 h	X	Ikasleak, pieza fisikoak eskutan hartuta, pieza horiek definitzen dituzten bistak irudikatuko ditu formatu jakin batzuetan.  Laminen gainean marraztutako piezen perspektibak erreferentziatzat hartuta, pieza interpretatzen duten bistak lortuko ditu.  Ikasleen piezak trukatu dira, eta alderatu egingo dira emaitzak, ikasle bakoitzaren ikaskuntzaren egoera finkatzeko.	Ikasleek bistak interpretatzeko behar besteko trebetasuna eta abilezia eskuratzeko eta irudikatze sistema guztietan aise lan egiten jakiteko.  Ikasleen nahikotasun-maila aztertzeke.  Emaitza zuzenak lortzen ez dituzten ikasleak berreskuratzeko.	
<b>OHARRAK</b>						
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Krokisen praktikak egiteko, komeni da paper laukidun berezia erabiltzea.</li> <li>• Ikasleek proiektioekin duten lehen harreman izan daitekeenez gero, praktika gidatua nabarmenduko dugu.</li> <li>• Komenigarria izan daiteke piezen zailtasuna areagotzea, ikasleen aurrerapenari erreparatuta.</li> </ul>						



3. unitate didaktikoa: AKOTAZIOA						Iraupena: 8 ordu			
<p><b>IE1 : Instalazio termikoetako eta fluidodunetako elementuak eta ekipamenduak irudikatzen ditu, eta planoetan eta eskemetan aplikatzekoa den sinbologia normalizatuarekin lotzen ditu.</b>  <b>IE3: Instalazio termikoen eta fluidodunen planoak marrazten ditu, irudikatzeko konbentzionalismoak eta diseinu-programak aplikatuz.</b></p> <p><b>Ikaskuntzaren helburuak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Akotazioaren araurik oinarritzkoenak ezagutzea.</li> <li>2. Koten elementuak eta ezaugarriak interpretatzea.</li> <li>3. Akotazioaren jardunean trebatzea.</li> </ol>									
EDUKIAK						Multzok			
						1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Akotazioaren sinbologia interpretatzea.</li> <li>• Akotazioa irudikatzeko arauak aplikatzea.</li> <li>• Plano kotatuak interpretatzea.</li> </ul>				X		X	
KONTZEPTUZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Akotazioan erabiltzen diren elementu motak.</li> <li>• Akotazio-arauak.</li> <li>• Akotazio-sistemak.</li> <li>• Koten sailkapena.</li> </ul>				X		X	
JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zorroztasuna, arauen arabera eta txukuntasun eta garbitasun egokiarekin egindako lanak aurkeztean.</li> <li>• Berrikuntzetarako eta eguneratzeetarako egokigarritasuna eta prestasuna.</li> <li>• Jarrera parte-hartzailea eta laguntzailea.</li> </ul>				X		X	
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK	
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota		Helburu inplikat.	D	NORK		NOLA egingo den		ZERTARAKO egingo den	
				Ir.	Ik.				
<b>J1 Unitate didaktikoaren aurkezpena.</b>			0,5 h	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.		Unitate didaktikoa piezen forma eta dimentsioak zehazten dituzten gainerako oinarritzko unitateen artean kokatzeko.	
								OCDa. Gardenkien proiektorea. Ereduko laminetako adibideak.	



					Industria-planoak ebatzita dauden ariketekin erakutsiko zaizkie.		
<b>J2 Akotazioari eta berariazko araudiari buruzko azalpena.</b>	1,2,3	1 h	X		Irakasleak akotazioa zuzentzen duten erregelak eta akotazioari buruzko oinarriko eta funtsezko arauak aurkeztuko ditu kasu praktikoen bitartez.	Ikasleek akotazioan erabiltzen diren berariazko elementuak ezagutzeko eta UNE 1039-75 eta DIN 406 arauak zehaztutako erregelak ezagutzeko.	Arbela. Gardenkien proiektorea. Industria-plano kotatuak.
<b>J3 Akotazioaren aplikazioari buruzko praktika gidatua.</b>	1,2,3	1,5 h	X	X	Piezen ariketekin prestatutako laminen bitartez aplikatuko dira akotazioan erabiltzen diren elementuak: kota-lerroak, lerro osagarriak, erreferentziako lerroak, geziak, zifrak, eta abar.	Ikasleek akotazioaren araudiaren inguruan lortutako jakintzak aplikatzeko.	Proiektorea. Piezak irudikatzen dituzten laminak.
<b>J4 Piezen akotazioak txertatzeko ikasleen praktika autonomoa.</b>	1,2,3	2 h		X	Piezen bisten proiektzioak abiapuntu izanik, akotazioaren oinarriko arauak aplikatuko dituzte ikasleek.	Akotazioan erabiltzen diren elementuak txertatzean banaka lan egiteko.  Akotazioaren jardunean behar besteko trebakuntza lortzeko.  Zati mekanizatu normalizatuak dituzten piezen akotaziorako irizpideak ezagutzeko.	Proiektoreak. Kotatzeko piezak irudikatzen dituzten laminak. Kotatzeko perspektibak. Industria-pieza fisiko sinpleak.
<b>J4.1 Ikasleen praktika autonomoa zuzentzeko prozesua.</b>	1,2,3	1 h	X	X	Arbelean ebatzitako ariketen proiektzioaren laguntzarekin.	Akotazioaren ezagutzaren eta aplikazioaren puntu ahulak hautemateko.  Akotazioaren aplikazioan antzeko estiloa lortzeko.	Piezen irudikapena. Eskanerra/proiektorea. Ikus-entzunezko bitartekoa (kanoia). Marrazketa-tresnak.
<b>E1. Banakako ikasteko prozesua ebaluatzea.</b>	1,2,3	1 h	X		Test gisako kontrola baten bitartez eta proba praktikoa sinple baten laguntzarekin egingo da ebaluazioa.	Ikasle bakoitzaren aurrerapenen jarraipena egiteko, eta lortutako jakintza baloratu ahal izateko.	Bisten proiektzioak. Test gisako ariketak.



						Ariketen jarraipenean hautemandako akatsak aztertzeko.	
<b>J5 Akotazioan akatsak bilatzearen bitartez berrikuste-ariketak egitea.</b>	3	1 h		X	Irakasleak akotazioa txertatuta duten test gisako laminak erabiliko ditu.	Akotazioa aplikatzean erakutsitako puntu ahulak konpontzera begira, guztia berrikusteko.	Test moduko laminak. Industria-planoak.
<b>OHARRAK</b>							
<ul style="list-style-type: none"><li>Akotazioaren lehen azalpenean, komeni da akotazioa txertatuta duten benetako plano sinpleak ikustea.</li></ul>							





4. unitate didaktikoa : EBAKIDURAK ETA SEKZIOAK INTERPRETATZEA ETA EGITEA Iraupena: 8 ordu

**IE1 :** Instalazio termikoetako eta fluidodunetako elementuak eta ekipamenduak irudikatzen ditu, eta planoetan eta eskemetan aplikatzekoa den sinbologia normalizatuarekin lotzen ditu.  
**IE3:** Instalazio termikoen eta fluidodunen planoak marrazten ditu, irudikatzeko konbentzionalismoak eta diseinu-programak aplikatuz.

**Ikaskuntzaren helburuak:**

1. Ebakidura eta sekzioei buruzko oinarriko arauak ezagutzea.
2. Ebakidura motak interpretatzea eta egitea.
3. Ikasleak sekzioen xehetasunetan trebatzea.

EDUKIAK					Multzok			
					1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ebakiduren eta sekzioen irudikapen-arauak aplikatzea.</li> <li>• Ebakidura motak interpretatzea.</li> <li>• Bista ebakien irudikapena interpretatzea.</li> </ul>				X		X	
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ebakidura motak.</li> <li>• Ebakiduretako eta sekzioetako marradurei buruzko araudia.</li> <li>• Ebakiduren eta sekzioen berezitasunak.</li> <li>• Sekzio motak.</li> </ul>				X		X	
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zorroztasuna arauak aplikatzean eta laneko ordenan.</li> <li>• Berrikuntzetarako eta eguneratzeetarako egokigarritasuna.</li> <li>• Irudikatzeko konbentzionalismoekiko errespetua.</li> </ul>				X		X	
JARDUERA			METODOLOGIA				BALIABIDEAK	
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
<b>J1 Unitate didaktikoaren aurkezpena.</b>		0,5 h	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.	Unitate didaktikoa gainerako unitateei dagokienez kokatzeko. Proiektzioak argitzeko eta gairako sarrera txikia egiteko.	OCDA. Gardenkien proiektorea. Figuren irudikapena, ebakidura eta sekzioekin.	



					Pieza ebaki bat eta dagokion irudikapen grafikoa erakutsiko du irakasleak.		
<b>J2 Ebakiduren, ebakidura moten eta horien orokortasunen normalizazioari buruzko azalpena.</b>	1,2	1,5 h	X		<p>Industria-pieza bat aurkeztuko da eta proiektzioa erraztuko duen ebakidura egingo da.</p> <p>Proiektore/kanoi baten laguntzarekin ebakidura motak erakutsiko dira: erabateko ebakidura, erdiebakidura, plano paraleloen araberako ebakidura, laurden bateko ebakidura.</p>	Piezak irudikatzean ebakidurak eta sekzioak txertatzeak duen garrantzia nabarmentzeko. Metodologia eta irudikatze prozesua behar bezala aplikatzeko.	Arbela. Gardenkien proiektorea. Ebakidurak dituzten industria-piezen bistak.
<b>J3 Ebakidurak egiteari buruzko praktika gidatua.</b>	1,2	1,5 h	X	X	<p>Piezen ebakiduren irudikapenak egitea eskatzen duten irudien perspektibak islatzen dituzten laminak erabiliko dira.</p> <p>Pieza fisiko prismatikoak zein zilindrikoak baliatuz, ikasleek piezaren bistak eta ebakidurak lortuko dituzte, betiere irakaslearen jarraipenarekin.</p>	Ikasleak ebakidurak eta sekzioak aplikatzeko prozesuan bere puntu ahulak hautemateko.	Proiektorea. Piezak irudikatzen dituzten laminak.
<b>J4 Sekzioei eta horien motei buruzko azalpena.</b>	3	0,5 h	X		<p>Gardenkien proiektzioaren bitartez, sekzioen erabilgarritasuna azalduko du, baita sekzioek ebakidurekiko dituzten aldeak eta sekzioen kokalekua, irudikapena eta motak ere.</p> <p>Sekzioen eta lortutako bisten koherentzia, horien kokalekua eta irudikatzean erabilitako lerro mota nabarmenduko da.</p>	<p>Ebakiduren eta sekzioen aplikazioa bereizteko.</p> <p>Ikasleak sekzioen erabilerarik egokiena hautatzen ohitzea.</p>	Arbela. Gardenkien proiektorea. Ebakidurak eta sekzioak dituzten industria-piezen bistak. Proiektorea/kanoia.
<b>J5 Ebakidurak eta sekzioak aplikatzeari buruzko ariketak egitea.</b>	1,2,3	2,5 h		X	<p>Marrazketako lamina prestatuetan eta marrazketako elementuez baliatuz, ikasleek marrazkiak argitzen dituzten beharrezko sekzioak eta ebakidurak lortuko dituzte.</p> <p>Ebakidurak eta sekzioak dituzten baina gaizki irudikatuta dauden hainbat ariketa ebatzitan zuzenketak egin beharko dituzte.</p>	<p>Ikasleak bisten irudikapenean trebatzeko, baita ebakidurak eta sekzioak txertatzen trebatzeko ere.</p> <p>Piezaren irudizko ebakidura hautematean behar besteko trebetasuna lortzeko.</p>	Proiektoreak. Pieza fisikoak. Bistak, sekzioak eta ebakidurak lortzeko laminen gaineko perspektibak. Industria-pieza fisikoak.



<b>E1 Banakako ikasteko prozesua ebaluatzea.</b>	1,2,3	1 h	X	X	<p>Piezen planoen bisten gainean ebakidurak eta sekzioak egitea eskatuko duen proba praktiko baten laguntzarekin egingo da ebaluazioa.</p> <p>Plano paralelo bidezko edo paraleloak ez diren planoen bidezko erdiebakidurak eta ebakidurak behar dituzten pieza fisikoen bistak lortuko dituzte. Nolanahi ere, zuloen, barne-janguneen eta plano inklinatuen xehetasunak dituzten pieza fisikoak izango dira.</p>	<p>Ikasleen aurrerapenaren jarraipena egiteko eta lortutako jakintzak baloratzeko.</p> <p>Lortutako emaitzak eta emaitzen puntu kritikoak aztertzeko.</p>	Bisten proiektzioak.
<b>J6 Zuzendutako ariketak ikasleen artean trukatzeari.</b>	1,2,3	0,5 h	X	X	Zuzenketan hautemandako akatsak erakutsiko dira, eta ikasleek akats horien berri elkarri eman diezaioten sustatuko da, ikaskuntzarako oso baliagarria izango baitaie.	Ikasleek kontrol-puntuetan hautemandako puntu ahulak gaindi ditzaten inplikatzeko eta motibatzeko.	Zuzendutako azterketak berak. Konponbideen proiektzioa.
<b>OHARRAK</b>							
<ul style="list-style-type: none"> <li>Unitate didaktiko honen helburu nagusia da ikasleek ebakiduraren kontzeptua eta sekzioaren kontzeptua bereiztea.</li> <li>Arreta berezia jarri beharko da bista hautatzean eta ebakidura egiteko leku egokia hautatzean.</li> </ul>							



5. unitate didaktikoa: PERSPEKTIBAK INTERPRETATZEA ETA EGITEA						Iraupena: 10 ordu			
<p><b>IE1</b> : Instalazio termikoetako eta fluidodunetako elementuak eta ekipamenduak irudikatzen ditu, eta planoetan eta eskemetan aplikatzekoa den sinbologia normalizatuarekin lotzen ditu.</p> <p><b>IE3</b>: Instalazio termikoen eta fluidodunen plano orokorrak lantzen ditu.</p> <p><b>Ikaskuntzaren helburuak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Perspektibako irudikapenaren teknika menderatzea.</li> <li>Sistema axonometrikoaren oinarriak ezagutzea.</li> <li>Perspektiba isometrikoak interpretatzea eta gauzatzea.</li> </ol>									
EDUKIAK						Multzook			
						1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kurbak eraikitzea (obaloak).</li> <li>Perspektiba isometrikoa irudikatzea.</li> <li>Perspektiba motak aplikatzea.</li> </ul>					X		X	
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irudikapenei buruzko araudi orokorra.</li> <li>Perspektiba motak.</li> <li>Erredukzio-koefizienteak eta ihes-lerroak.</li> <li>Perspektiba isometrikoa.</li> </ul>					X		X	
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>Talde-lanerako egokitzapena.</li> <li>Ezarritako denborekiko errespetua.</li> <li>Lanak aplikatzean metodoa eta sormena.</li> </ul>					X		X	
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK	
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den		ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.					
<b>J1 Unitate didaktikoaren aurkezpena.</b>		0,5 h	x		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa modulua barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.	Unitate didaktikoa gainerako unitateei dagokienez kokatzeko. Sarrera egiteko eta pieza konplexuen interpretazioan laguntzeko.		OCDa. Gardenkien proiektorea. Perspektibak irudikatzen dituzten laminak.	



					Industria-pieza baten gaineko perspektiba baten irudikapena azalduko da.		
<b>J2 Perspektiban irudikatzeari buruzko azalpena.</b>	1	1 h	x		Irakasleak perspektibak lortzeko oinarrizko nozioak aurkeztuko ditu. Proiektore/kanoi baten laguntzarekin, perspektiba sinplea eta argia lortzeko egin beharreko urratsak erakutsiko ditu.	Irudikapenaren erregelak eta printzipioak argi eta zuzen aplikatzeko, UNE 1031-75 arauak aditzera ematen duen bezalaxe. Ikasleei hiru dimentsioko irudikapenak edo perspektibako irudikapenak dituen alde onak azaltzeko.	Arbela. Gardenkien proiektorea. Proiektorea/kanoia. Hiru dimentsioko proiektzioa bistaratu duen maketa. Irudi fisikoak.
